

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GORBEIALDEKO KUADRILLA

**Onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesukoa, Administrazio Orokorreko eskalako 2 administrari laguntzaile plazari dagokiona, txanda irekiko lehiaketa sistemaren bidez**

Presidentziaren 2023ko abenduaren 13ko Ebazpenaren bidez, honako erabaki hau hartu da:

Deialdiaren oinarriak 2022ko abenduaren 21eko ALHAOn (146. zk.) argitaratu dira, eta hutsen zuzenketa, berriz, 2023ko martxoaren 29ko ALHAOn (37. zk.).

Deialdiaren laburpena argitaratu da 2023ko apirilaren 19ko BOEn (93. zk.).

Deialdiaren xede diren lanpostu hutsak hautatzeko prozesuetan onarpen-eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, ikusi zen zenbait eskaerak ez zutela betetzen deialdiaren oinarri orokorretan xedatutakoa.

Hori ikusita, hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorren 6.5 artikuluekin eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikuluekin bat etorritik, interesdunei eskatu zitzaizkien hamar egun balioduneko epean akatsak zuzentzeko.

Errekerimenduak iragarki-taulan eta webgunean argitaratu ziren ([www.gorbeialdekokuadrilla.eus](http://www.gorbeialdekokuadrilla.eus)), eta zuzenean interesa zuten pertsonen jakinarazi zitzaizkien.

Epea igaro ondoren, pertsona horietako bakar batek ere ez zituen ez-betetzeak zuzendu.

Aurrekoa ikusita, Presidentziaren 2023ko abuztuaren 28ko Ebazpenaren bidez, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartu zen, eta iragarki-taulan eta webgunean ([www.gorbeialdekokuadrilla.eus](http://www.gorbeialdekokuadrilla.eus)) jarri zen ikusgai 10 egun balioduneko epean, baztertutako izangaien aldetik erreklamaziorik aurkezten bazuten ere.

Epea igarota, inork ez du erreklamaziorik aurkeztu.

Aurrekoa ikusita, onartutako oinarri orokorren 8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 g) artikuluan ezarritakoaren arabera, zeina Arabako Kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren azken xedapenean adierazitakoaren arabera aplikatu behar baita,

#### EBATZI DUT

Lehenengoa. Gorbeialdeko Kuadrillan bi administrari-laguntzaile plaza, Administrazio Orokorreko eskalakoak, laguntzaile azpieskalakoak, txanda libreko lehiaketa sistemaren bidez (iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzea) hautatzeko prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea.

IZEN-ABIZENAK	NANA	ONARTUA BAZTERTUA	ARRAZOIA (1)	PUNTUEN AUTOBALORAZIOA
Alustiza Sagarna, Joana	***3029**	Onartua		27,05
Balbas Aguilar, Raquel	***9698**	Baztertua	A	
Barrasa Márquez, Zuriñe	***2696**	Onartua		23,33
Carro Iglesias, Idoia	***5328**	Onartua		100
Foronda Fernández de Ocariz, Naiara	***3745**	Onartua		100
Menoyo Mugica, Leire	***4960**	Baztertua	D	
Vadillo Arrieta, Jokin	***0617**	Onartua		20,99

(1) Baztertutako arrazoiak: eskaerarik ez dago (A), eskaera epeaz kanpo egin du (B), eskaera osatu gabea eta epearen barruan zuzendu gabea da (C), tasa ez du ordaindu (D), atzera egin du (E)

Bederatzigarren oinarrian jasotakoarekin bat etorriz, deialdian 2 plaza daudenez, onartutako eskabide guztiak baloratu behar dira.

Bigarrena. Onartzea ofizioz kontsultatuko den informazioaren zerrendari buruzko I. eranskina, eta adostasunaren/aurka egite eredia eta II. Eranskina, deialdian parte hartzeko betekizun modura aurkezten den titulazioaren adierazpenarekin lotutakoa.

Hirugarrena. Autobalorazioan kasu bakoitzean adierazitakoa baino puntuazio handiagoa lortu duten izangaiek agiriaren bidez egiaztatu beharko dituzte eskaeran alegatutako merezimenduak, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekerimendu honek barnean hartzen ditu eskaeran alegatutako merezimendu guztiak, zazpigarren oinarriaren arabera ofizioz kontsultatu behar direnak izan ezik, eskatzaileak aurka egin ezean. Era berean, I. eranskina aurkeztu beharko dute, ofizioz kontsultatuko den informazioaren zerrenda eta adostasun/aurka egite eredia jasotzen duena.

Laugarrena. Autobalorazioan kasu bakoitzean adierazitakoa baino puntuazio handiagoa lortu duten izangaiek adierazi beharko dute zein den deialdian parte hartzeko betekizun gisa erabiliko duten titulua, eta, hala badagokio, aurrerago egiaztatu beharko dute. Horretarako, II. eranskina beteta aurkeztu behar dute.

Bosgarrena. Agiriak deialdia egin duen administrazioaren egoitza elektronikoan aurkeztu ahal izango dira, edo aurrez aurre, erakundearen erregistro eta herritarrentzako arretarako bulegoan. Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezartzen dituen tokietako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango dituzte.

Seigarrena. 8.2. oinarriaren arabera, baztertutakoak merezimenduaren baloraziora aurkeztu ahal izango dira, bai eta euskara azterketa egitera ere, kautelaz, baldin eta kanporatzearen aurkako errekurtsua aurkeztu dutela egiaztatzen badute. Lehiaketaren kalifikazioa argitaratzen den egunean errekurtsua ebatzi gabe badago, kautelaz egin ahal izango dute euskara azterketa. Egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsua ezestekoa bada.

Zazpigarrena. Aipatutako hautaketa prozesuan epaimahai kalifikatzaileko kide gisa ondorengo pertsonak izendatzea:

	TITULARRA	ORDEZKOA
Epaimahaiburua	Pablo Martínez de Arbuló Echevarría	Alexander Rodríguez López
Bokala	Vanessa Domínguez Casal	M <sup>o</sup> del Carmen Rojo Pitillas
Bokala	Jose Ignacio Goenaga Garralda	Amado Abascal Calleja
IVAPeko ordezkaria	Carmen Luque Moreno	Izaskun García Zorzano
Idazkaria	María Jesús Sáez de Jauregui Suso	Jorge Gallo Medina

Zortzigarrena. Agintzea ebazpen hau ALHAOn argitara dadila, bai eta Gorbeialdeko Kuadrilaren iragarki taulan eta webgunean ere.

Bederatzigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta beronen aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio presidentziari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua administrazioarekiko auzien jurisdikzioan eskuduna den organoan, bi hilabeteko epean, aipatutako egun beretik aurrera. Ez dago bi errekurtsuak batera jartzerik. Aurrekoetz gain, interesdunak egoki irizitako beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango du.

Era berean, epaimahaikide direnak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan xedatutako egoeretako batean badaude, edo deialdia baino lehenagoko azken bost urtetan izangaiek prestatzen aritu badira, interesdunek edozein unetan

errekusatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, aipatutako lege testuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Murgian, 2023ko abenduaren 13an

*Presidentea*

AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA

## I. ERANSKINA

Deialdi honen oinarri orokorren arabera, alegatutako merezimenduak egiaztatuko dira, kasuen arabera, kontsulta eginez dagokien erregistroetan, administrazio publikoen datu bitartekaritzarako plataforman edo ziurtagiria ematen duen erakundean.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzaileak modu arrazoituan horren aurka egin badu eta tratamenduaren ardura duen organoak hori aintzat hartzen badu.

Modu arrazoituan aurka egiten duela adieraziz gero, adierazpen horrekin batera aurkeztu beharko ditu, nahitaez, kontsulta daitezzen nahi ez duen agiriak.

Deialdi honetan, deialdia egin duen erakundeak ofizios egiaztatuko ditu eta/edo espedientean sartuko ditu, interesdunak berariaz kontrakorik adierazi ezean, honako datu hauek (ikus zazpigarren oinarria):

- NAN/AIZ.
- Titulu akademikoak, unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak.
- Euskara Tituluaren eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan inskribatutako euskara ziurtagiriak.
- IVAPen bidez (Administrazio Publikoaren Euskal Institutua) egin eta gainditutako ikastaroen ziurtagiria.
- Gidabaimena (DGT).
- IT txartelen ziurtagiriak.
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak.
- Deialdia egin duen administrazioan gainditutako hautaprobak.

### DATUAK KONTSULTATZEKO ADOSTASUNA/AURKA EGITEA

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ: .....),  
..... prozedurari dagokionez, honako hau

ADIERAZTEN DU (markatu dagokiona):

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, ez nago eranskin honetan adierazitako datuak kontsultatzearen aurka.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, informazio hau kontsultatzearen aurka egiten dut:

- Titulu akademikoa.
- Euskarako hizkuntza eskakizuna.
- IVAPen bidez egin eta gainditutako ikastaroen ziurtagiria.
- Gidabaimena (DGT).

- IT txartelen ziurtagiriak.
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak.
- Deialdia egin duen administrazioan gainditutako hautaprobak.

Aurka egiteko arrazoiak:

.....  
.....

Agiri hauek kontsultatzearen aurka nago, eta neuk aurkezten ditut:

.....  
.....

....., .....(e) ko .....ren .....(a)

Sin.:

## II. ERANSKINA

### BETEKIZUN GISA AURKEZTEN DEN TITULUAREN ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ: .....),  
..... erakundearen .....deialdiari  
dagokionez, honako hau

ADIERAZTEN DU:

Deialdi honetan parte hartzeko betekizun gisa..... titulua erabiliko dut,  
egun honetan lortua: .....

....., .....(e) ko .....ren .....(a)

Sin.: